



Esp. kodea: 2017SAPL0005

Gaia: PLENOA 2017/06/06
Hasiera eguna: 2017/05/29

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko ekainaren 6a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2017ko maiatzaren 9a egindako bileraren akta onartu du.

0.-ESKOLAKO AGENDA 21: KLIMA ALDAKETA

Herriko eskoletako haur eta gaztetxoek Eskolako Agenda 21en barruan aurten egindako lanaren berri eman dute. Gaia: Klima Aldaketa

2.-MAKATZENA AUZOKO GOI ALDEAN AUTOBUS GELTOKIA SORTZEKO ERABAKIA BERRESTEKO PROPOSAMENA

Osoko bilkurak aho batez erabaki du onartzea kontratuaren aldaketa, ARRASATEN BUS BIDAIA RIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETArena, bere garaian adjudikatu zitzaiona LEINTZ GARRAIOAK SL enpresari, beharra baitago zerbitzuaren geltokiak gehitzeko.

3.-UDAL ZORREN ORDAINKETA ATZERATU ETA ZATIKATZEARI BURUZKO ORDENANTZA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurak aho batez erabaki du hasiera batean onartzea udal ordenantzaren aldaketa, arautzen duena atzerapenak eta zatikapenak ematea, Arrasateko Udalarekiko zerga zorrak ordaintzeko.

4.- EAEKO AUZITEGI NAGUSIA; BAKE EPAITEGIKO EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO ESKAERA.

Osoko bilkurak aho batez erabaki du bake epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposatuko diren pertsonak aukeratzeko prozesua agindu behar duten oinarri-arauak onartzea.

5.-IRABAZI, BALEIKE ETA EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, LGTBI HARROTASUNAREN EGUNARI BURUZKOA

Irabazi, Baleike eta EH Bildu udal taldeek aurkeztutako mozioa ez da onartua izan, aldeko 9 boto (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) eta aurkako 11 botorekin(EAJ-PNV eta PSE-EE)



Esp. kodea: 2017SAPL0005

Gaia: PLENOA 2017/06/06
Hasiera eguna: 2017/05/29

Arrasaten, 2017ko ekainaren 6an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta